

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
uztailaren 7a  
503. zenb.

## Udalekuetan murgilduta

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: JABIER IBAÑEZ  
KIROLAK: MONDRAREN BATZARRA • KULTURA ELKARRIZKETA: OFFSET

ETEKINA EZ DA SEKULA  
HAIN GORA IGO



www.kutxa.net

## ERABATEKO LIKIDEZIAZ

**10**  
**GORDAILU**

*kutxak GORDAILU 10 jarri du orbitan.*

*Atxiki iezaiozu aurrezki-modu berri honi, 500.000 pezetatik aurrera. Zeure diru-kopuru osoaz edota beronen zeinahi zatiz baliatu ahal izango zara kontratazio-egunaren biharamunetik beretik eta etekin paregabea eskuratuko duzu, etekin hau, gainera, gordailuek zenbat eta luzarago iraun, orduan eta gehiago haziko delarik. GORDAILU 10-ekin zure aurrezkiek suziriak bezala egingo dute gora.*

**ABUZTUAREN 11ra ARTE EDO AURREZKI-MOTA HONENTZAT  
EZARRITAKO KONTRATAZIOKO KOPURU OSOA LORTU ARTE.**

**BESTE ERAKUNDEETAKO TXEKEAK GASTURIK GABE KONPENTSATUKO DIRA**

\* 5 milioi pezetako gordailuentzat, 31 hilabetez irauten badute. Hona beste etekin batzuk, saldoen eta iraunaldiaren arabera: 500.000 pta. - 6 hilabete: %3,02 U.T.B. • 1.000.000 pta. - 12 hilabete: %3,50 U.T.B. • 3.000.000 pta. - 31 hilabete: %4,35 U.T.B. • Kitapenerako muga-data: Gordailu 10 kontratatzen den hasierako datatik 31 hilabetera.



**kutxa**

Zure diruaren balio erantsia.

# AHTren aurkako akanpada

**A**biadura Handiko Trenaren aurka, uztailaren 24tik abuztuaren 6a arte egingo den akanpada parte hartzera deitzen zaituztegu. Maiatzaren 20an, muga artifizialaren bi aldetako mugimendu sozialak elkartu ziren Irungo manifestazioaren ondoren, mundu guztia animatzen dugu AHTren aurkako protesta mobilizazio honetan parte hartzera.



Iker Ezpeleta

Akanpada, elkargune soziala, partehartzailea eta komunikatiboa izango da. Bertan bilerak, hitzaldiak, tailerrak, mendi-martxak, kontzertuak, festak, antzerkiak, umeentzako ludotekak, etab. egingo dira. Helburua: AHT bezalako azpiegiturek indarrez inposatzen dizkiguten politika garatzaile eta ekonomiaren globalizazioaren aurrean sortutako dinamika sozial eta

borroka desberdinak ezagutzera ematea. Makroproiektu hauen atzetik dagoen gizarte eta ekonomiak ingurumenari eragindako harrapaketa eta gizarteari eragindako kalteen aurrean, hausnartze kritikoa sortu nahi dugu.

Debagoieneko pertsona eta elkarteei ere gonbitea egiten diegu, ea honela lortzen den maila lokalean erantzun bat bultzatzea. Makroproiektu hauek sistemak inposaturikoak dira, hiperkontsumoan oinarritutako sistema, "bizitzea kontsumitzea da" leloetara iritsiz, eta produkzio guztiz lehiakor eta garatzailea duenez, gero eta autobia, urtegi, automobil, zentral termiko, harrobi, zentral eoliko, abiadura handiko tren... gehiagoren gauzatzea behartzen du.

Deba Bailara, horren adibide garbienetarikoa da. Eskualde honek gutxiak bezala jasan behar du

azpiegitura handien uholdea: "Euskal Y"aren korapiloaren euskarri fisikoa besterik ez da, batez ere Udalatxan, tunel eta isurtegi erraldoien kokaleku; eskualdeko bazterketa gehitzen zaio, AHTk kapitala hiru gunetan kontzentratzea bultzatzen baitu. Egiten ari diren Eibar-Gasteiz astopista, zeinak ez duen inolako trafiko arazorik konponduko. Durango-Beasain autobia automobil indartzearen beste pauso bat, Olandixoko tunela, Elgeako Zentral Eolikoa edo harrobiak; Gipuzkoan diren etatik laurdenak Arrasaten aurkitzen diren datu ikaragarriekin.

AHTk lortu du finantzabidea edo hasierako 500.000 milioiak behintzat, beste datu ikaragarri bat. Beraz, eta arazorik latzena gairatuz, alegazio eta ingurumen inpaktuaren deklarazioa ezer geldiarazten ez duen tramite hutsa baita, datorren urterako obrak hastekotan dira. Astopistarekin bezala, bailara lokartuta geldituko al da?

Aukera paregabea akanpada hausnarketarako, indar biltzerako eta nola ez elkar ezagutuaz egun desberdin batzuk igarotzeko. ■

## Uztailaren 24tik abuztuaren 6a arte akanpada egingo dugu

*"Euskal Herrian jendea ez da gai elkartu eta lana batera egiteko".*

Imanol Galfarsoro

# 27

## Lanpostu herri-administrazioarako.

27, udalarenak dira; bost, behin-behinekoak. Bide ingeniariari bat, antolaketa, saneamendu eta informatika teknikariak eta informatika laguntzaile bat eskatzen dira bi urtez lan egiteko. Beste bi lanpostu barne promozioak dira eta geratzen diren 20ek funtzionario izaera dute.

### AURKIBIDEA

- Ikuspegia . . . . . 3
- Aurrez aurre . . . . . 14/15
- **AHTren aurkako akanpada**
- Imanol Galfarsoro
- Irakurlea idazle . . . . . 4
- Asteko gaia . . . . . 16/17
- Inkesta . . . . . 5
- **Udalekuak nahiago bidaiak baino**
- Euren ikuspuntutik . . . . . 6
- Txutxumutxuak . . . . . 19/21
- **Bazterketa soziala**
- Begi kolpez . . . . . 7
- Kirolak jokoan . . . . . 22/23
- Asteko hitzorduak . . . . . 8/9
- Kulturaren txokoa . . . . . 24/26
- Astearen errepassoa . . . . . 10
- Ikusi eta entzun . . . . . 27
- Orain eta hemen. . . . . 11/13
- Azoka plaza . . . . . 28/29
- Foto zaharra . . . . . 30

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatzora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irtatia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Mario Deogracias. Kazarariak: Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroizabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Bereizibar (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemakila: Lorea Agiriano

Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. Banaketa arduraduna: Naira Oñozola-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/83. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igoalatorria ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Arrasate  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria ..... 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## NOIZ ARTE EUSKAL PRESOAK SAKABANATURIK?

**D**ispertsio politika basatiak bere horretan dirau. Egia da, asko da lortutakoa, anitz dira inplikazioak eta herri-mugimendu ezberdinekin egindako lana, txalogarria da, baina ez nahikorik.

Ez dugu ikusten etsipenean ezta ezkortasunean erortzeko ezta arrazoi bakar bat ere, arazoa gure mutur aurrean dagoelako eta inoiz baino tinkoago aritu behar garelako denok bat eginez.

Euskal presoengatik inguruko dinamika ezin dira eten justu une honetan eta orain arte egindako lan guztia zakarrontzira bota "egoera politikoa aldatu egin dela esanez". Hori aitzakia hutsa da gure ustetan: zigorraren 3/4ak beteta dituzten euskal presoak preso daude; gaixorik dauden euskal presoak preso daude; Euskal Herritik urrun daude eta guk senideok eta lagunok bizia galtzen jarraitzen dugu errepideetan. Nork pentsatzen zuen dispertsio politikarekin amaitzea erraza izango zela?

Indarrak batuz eta presio sozialarekin ez bada, nola mugiarazi PPko gobernua? Nola aurrera segi etsipen sen-

timendua salduarazi nahi badigute?

Ea behingoz eta betiko dispertsio politikarekin amaitzeko behar den bultzakada ematen zaion.

Dispertsioak dirauen bitartean, ez du balio beste aldera begiratzea. Gure konpromisoekin tinko eutsi behar diegu, eta, hori dela eta, datorren asteazkenean, hilak 12, arratsaldeko 6etan Mekara iritsiko den dispertsioaren aurkako MARTXA NAZIONALAREKIN bat egin behar dugu.

Euskal Presoak Euskal Herrira !

*Arrasateko Senideak*

**S**an Joan bezperan gertatutakoaren aurrean Arrasateko Eusko Alkartasunak zera adierazi nahi du:

Euskal presoengatik eskubideak eta hauen Euskal Herriratzeara defendatu izan dugu, defendatzen dugu eta defendatuko dugu, baina era berean ez dugu uste herriko kultur ekintzak boikoteatzea hori lortzeko bidea denik.

Euskal Herritarren gehien-goak ez ditu saku berean sartzen presoengatik eskubideak eta ETA taldea, eta presoengatik edozein ekitalditan ETAREN aldeko ahotsak eta pankartak azaltzen badira, automatikoki bere burua kanpoan ikusten du, gure kasua ere hau delarik.

Era berean, gaitzezgarriak dira danborradako parte hartzaile batzuek jasan behar izan zituzten irainak.

Kezka hauek azaldu eta gero, galdetzen diogu geure buruari presoengatik eskubideak aldarrikatu beharrean ez ari garen dauzkagun desberdintasunak azpimarratzen. Euskal Herria askatzeko abertzaleak batuta egon behar gara.

Bukatzeko, gauza guztiak bere lekua eta momentua dutela esan nahi genuke.

*Arrasateko Eusko Alkartasuna*

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Ostirala, 7

• Azkoaga, Ferrerías

### Larunbata, 8

• Azkoaga, Iturriotz

### Igandea, 9

• Korkuera, Musakola

### Astelehena, 10

• Irizar, Erguin

### Asteartea, 11

• Amezua, Santa Marina

### Asteazkena, 12

• Zabala, Zarugalde

### Osteguna, 13

• Ruiz, Maalako Errabala

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

# Espainiako historia ala historia orokorra irakatsi beharko litzateke?

Espainiako Historiako Erret Akademiak ikastoletan irakasten den historia ez dela zuzena baieztatu zuen



**Kontxi Gomez**  
(31 urte)  
Langilea

= Berdin zait, nik bi urtez Euskal Herriko Historia ikasi nuen eta institutuan Espainiako.



**Alazne Ezkurra**  
(15 urte)  
Ikaslea

Historia orokorra. Nik ere horixe ikasi dut.



**Rufina Carcamo**  
(62 urte)  
Etxekoandrea

Historia, orokorrean; nire garaian denetik ikasi behar izan genuen.



**Unai Ezkurra**  
(21 urte)  
Langilea

Denetarik. Euskal Herrikoa niri ez didate irakatsi.



**Boni Ferreira**  
(18 urte)  
Ikaslea

Euskal Herrikoa irakatsi beharko lukete; nik denetarik ikasi dut.



**Itsaso Barrutiabengoa**  
(17 urte)  
Ikaslea

Euskal Herrikoa ere irakatsi beharko lukete. Nik denetarik ikasi dut, aurtan Euskal Herrikoa eta Espainiako ikasi ditut.



**Julian Perez**  
(42 urte)  
Langilea

Denetarik. Niri nire garaian Espainiako historia ikastea egokitu zitzaidan.



**Oskar Martinez**  
(28 urte)  
Ikaslea

Euskal Herrikoa. Ni oraindik ikasten ari naiz eta Filo-sofiaren Historia ikasgaia daukat, baina ez Euskal Herriko edo Espainiako historiarik.

**ML**  
ILE APAINDEGIA  
Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

**TXIRRIKA**  
Taberna  
Garagardo ona  
Giro hobea  
Gesalibar auzoa  
Tel.: 943 79 10 35

**Lore**  
• Lurrindegia • Kabina •  
• Fotodepilazioa •  
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

USTEAK USTE

Gelditu barik

**K**ilometro kilometro, pausoz pauso, horrela behar du. Guztion artean, poliki-poliki, baina atsedenik barik. Eta horrela dator "Euskal Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala". Hilaren 12an, eguaztenez, iritsiko da Arrasatera. Arrasaldeko 18:00etan Mekan izango ditugu Martxan parte hartzen ari direnak.

Kilometro mordo bat egin ditu Martxak Donibane-Lohitzunetik atera zenetik; hala ere, askoz gehiago dira, urtero-urtero euskal presoen senideek egin behar izaten dituztenak, euren sendiak ikusi ahal izateko.

Horregatik, beharrezkoa dugu, behin eta berriz betetzen ez den eskubide hau aldarrikatzea: euskal presoak Euskal Herrian bizi behar direla. Legeak agintzen du, baina bete ez da egiten. Hori eskatzea, beraz, ez da delitua, legítimoa baizik.

Gogoan izan, bada, eguazteneko hitzordua. Ehun metro korrika egitea ez da beste munduko ezer, baina eskubide baten alde merezi duen "esfortzu" txiki bezala planteatu nahi baduzue, ez da ezer gertatzen.

Marijo Deogracias



Bazterketa soziala

\* Jabier Ibañez

**L**an errentak kapital errenta bihurtzeko oso leku egokia da Arrasate: etxebizitzaren prezio ikaragarriak, alokairu handiak, etxebizitzak erosteko finantza kostu handiak...

Herri honetan eraikitzeko orduan espekulatzeko aukerari gizarte beharrei baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Hori dela eta, neurri hauek eskatzen ditugu:

- Gazteak etxebizitzara heltzeko Plan Berezia garatzea.

Arrasaten ezarrita dagoen eredu garatzaileak etxebizitzetako jabeen eta interes espekulatiboen alde bakarrik egiten du, eta horrek kaltetu egiten du lehen etxebizitza lortu nahi duena.

- Udaletik etxebizitza-aholkularitza eta informazio-zerbitzua eramatea.

- Udalak etxebizitzaren beharra eta egoera aztertzen duen inkesta egitea.

- Eraikitzeko dagoen lurzoruan, partikularren txaletak egiteko oztupoak jartzea.

- Kooperatiben eta enpresen interesei lehent-

sunia ematen dien udal politika eztabaidan jartzea. Hauek erabiltzen ari dira azkenengo lur librean euren egitasmo garatzaileak gauzatzeko.

Lurrari dagokionez, hauxe eskatzen diogu udalari:

- 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan indarrean dagoen Lur-Legea herrian ezartzea. Horretarako urteko aurrekontu osoaren %5 erabili beharko luke herri-lurretan.

- Inmobiliaria eta partikularrei udalak uzten dizkien eraikitzeko eskubideen irabaziak etxebizitza publikoak egiteko erabili daitezen.

- Halaber, eskatzen dugu eraikitzearen truke udalari dagoen ondasun higiezin zatia

“ Arrasaten ezarrita dagoen eredu garatzaileak etxebizitzetako jabeen eta interesen alde egiten du ”

alokairuko etxebizitza publikoetan erabiltzea.

- Arrasateko Udalak eraikitzeke xedearekin erabiliko dituen herri-lurretan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ditzala.

- Alokairuko etxebizitzaren aldeko politikaren beharra aldarrikatzen dugu, jabego kulturaren gainetik.

- Etxebizitzaren arazoari behin betiko irtenbidea emateko, etxebizitza sozialaren aldeko apustua egiten dugu.

- Kendu egin beharko litzaiteke babes ofizialeko eta etxebizitza sozialean sartu nahi duten pertsonen eskatzen zaien gutxiengo sarrera.

Espekulazioa

- Neurriak hartzea babes ofizialeko eta etxebizitza sozialeko beste batzuei ez transferitzeko, espekulatzeko prezioen bidez.

- Lurzoruen Legea bultzatzea, espekulazioa debekatzeko. Duela gutxi Euskal Lur Lege bat eskatu zuen Arartekoak, espekulaziorik izan ez dadin, etxebizitza duin eta merkeagoa lortzeko.

657 etxebizitza hutsik

- Hutsik dauden etxebizitzaren alokairuak sustatu eta alokatzen ez direnak zergapetzen diren foru arauen alde egin.

- Hitzarmena egitea udalak hutsik diren etxebizitzetako jabeekin, errentan jar ditzaten.

\* Denontzat

Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataforma

**P** Pando Errotuloak  
Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

**S. CARRASCAL S.L.**  
**Guk egindakoak:**  
• Sukalde altzariak  
• Armairu enpotratuak  
• Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**hildakoak**

- Felisa Carrasco Diaz, ekainaren 9an. 89 urte.
- Tomas Letona Arejolaleiba, ekainaren 15ean. 74 urte.
- Francisco Garcia Llanos, ekainaren 18an. 45 urte.
- Valeriano Soto Almodovar, ekainaren 18an. 71 urte.
- Crispina Fernadez Fernandez, ekainaren 19an. 91 urte.
- Ceferina Dediago Bachiller, uztailaren 2an. 91 urte.

**ezkontzak**

- Irene Aguriondo Arregi, ekainaren 12an.
- Itziar Ayerbe Lasagabaster, ekainaren 14an.
- Elena Kortabarría Skotnytska, ekainaren 9an.
- Aitana Sanchez Jimenez, ekainaren 15ean.
- Aitor Gorroñoigoitia Beitia, ekainaren 16an.
- Herminio Daluz Aguila, ekainaren 16an.
- Koldo Abarrategi Serrato, ekainaren 27an.
- Lorea Fernandez Fernandez, ekainaren 30ean.
- Amaia Arregi Korta, uztailaren 2an.

**jaiotzak**

- Jon Andoni Azurmendi eta Maria Josefa Hernandez, ekainaren 10ean.
- Cesareo Mateos eta Maria Petra Ramos, ekainaren 10ean.
- Sebastian Lozano eta Rosa Maria Mollano, ekainaren 10ean.
- Manuel Romero eta Maria Isabel Carballares, ekainaren 17an.
- Asier Arce eta Esther Rodriguez, ekainaren 24an.
- Alberto Carballo eta Nuri de la Torre, ekainaren 24an.
- Mikel Alonso eta Miren Gentzane Lopez, uztailaren 1ean.

**eskelak**

**Eskelak, esker onak  
eta urteurrenak  
jartzeko tartea**

**Azken eguna:  
asteazken eguerdira arte**

**Tel.: 943 71 23 91**

**mezak**

**San Joan parrokia**

**Larunbata**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandea**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (elebiduna)

**San Frantzisko eliza**

**Larunbata**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandea**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (erdaraz)

**Uribarri parrokia**

**Larunbata**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandea**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**San Andres eliza**

**Larunbata**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandea**  
10:00 (elebiduna)  
11:00 (euskaraz)  
12:00 (erdaraz)  
13:00 (erdaraz)

**Santa Teresa eliza**

**Larunbata**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandea**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Santamañako eliza**

**Jaiegun bezpera eta larunbata**  
19:00 (erdaraz)  
**Igandea**  
12:00 (erdaraz)

**Arrasateko komiki ez sexisten  
III. lehiaketa**

*Lanak aurkezteko epea 2000ko uztailaren 21a*

**SARIAK**

- Lehen saria: 90.000 PTA
- Aukera berdintasuna lantzen duena: 60.000 PTA
- Emakume egilearentzat: 60.000 PTA
- Gazte saria: 30.000 PTA
- Euskara Saria: 30.000 PTA (metakorra)



Artz Fernandez (Arrasate)



ARRASATEKO UDALA **Emakume Saila** ■ Tel.: 943 79 41 39

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

**Danona**  
KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

7

ostirala

■ ZINEMA

*Golpe a Traición*. 19:00-21:30, Alai zineman.

■ ZUZENEKO ANTZERKIA

Kontzezino kaleko Iamai kafetegian zuzeneko antzerkia izango da, *La Patro Teatro* konpainiaren eskutik: "Lec-ción de Orgasmo II: Buscando el Clitoris Desesperadamente" eskainiko da. 22:30.

8

larunbata

■ ZINEMA

*Stuart Little*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

9

igandea

■ ZINEMA

*Stuart Little*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

■ URBIARA

Urbiara igotzeko mendi ibilaldia antolatu da presoen eskubideak aldarrikatzeko. 10:00etan irtengo dira, Arantzazutik. Senideek, Eskualdeko Plataformak eta Gazte Ekimenak antolatu dute.

10

astelehena

■ ZINEMA

*Stuart Little*, 19:00-21:30, Alai zineman.

Gazpatxo eguna

Domeka honetan, Corazon de Encina Kultura Elkarte extremadurarrak Gazpatxo Eguna ospatuko du. Ekintzak 12:30etatik aurrera izango dira, Elkartearen egoitzan.



GIZARTE LAGUNTZAILEA

Arrasateko Udalak, GIZARTE LAGUNTZAILE lanpostua, funtzionario interino bitartez, bete nahi du.

Baldintzak: - Euskara: 3.HEren pareko jakintza  
- Gizarte laguntzaile titulua izatea

Aurkezteko epea:  
2000/7/8tik 2000/7/27rarte, biak barne.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

IKERKETAK EGITEKO BI TEKNIKARI KONTRATATZEA

Inem eta Udalaren arteko Hitzarmenaren barruan, Arrasateko Udalak bi teknikari kontratatu nahi ditu, ondoren aipatzen diren ikerketak egiteko:

- 1) Emakumearen egoera Arrasaten XX. mendearen
- 2) Nekazaritza sektorearen Arrasateko egoera

Kontratuak 4 hilabetekoak izango dira, irailaren 1etik abenduaren 31rarte.

Aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

- Euskara: 3.HEren pareko jakintza
- Unibertsitateko erdi mailako titulazioa
- INEMEN inskribatuta egotea

Interesdunak Arrasateko udaletxera etorri behar dira uztailaren 19an, goizeko 10:00etan, euskara proba, praktikoa eta elkarrizketa egiteko. Oinarriak Udaletxean, Personal Sailean, jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



# 11

## asteartea

■ ZINEMA

*Stuart Little*, 19:00-21:30,  
Alai zineman.

# 13

## osteguna

■ AIRE ZABALEKO  
ZINEMA

Monterron parkeko zinema saioan, *Todo sobre mi madre* filma eskainiko da. 22:30.

# 12

## asteazken

■ PRESOEN ALDEKO  
MARTXA

Arratsaldeko 18:00etan helduko da Eskoriatzatik "Euskal Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala". Mecan egingo zaio ongi etorria eta herria gurutzatuko du Eroskiraino. Segidan, Oñatirako bidea hartuko du.

■ MUS TXAPELKETA

Munar kaleko Corinto tabernan Mus Txapelketa jokatu da zapatuan. Izen ematea egun bereko 15:45ak arte egin daiteke. Bikote bakoitzak 5.000 pezeta ipini beharko ditu. 40 bikotek parte hartuz gero, 100.000 pezetako saria, edo proportzionala, banatuko da.

■ TXIKURIEN  
MARGOAK  
TOKI-EDERREN

Hil osoan, Francisco Mateos "Txikuri" margolari arrasatearraren erakusketa egongo da San Andreseko Toki-Eder kafetegian.

■ SEXOLOGIA  
ZERBITZUA

Uztailean, sexologia zerbitzuak honako ordutegia izango du: astelehen eta eguenetan, 10:00etatik 13:00etara. Beste edozein ordutan, 943 79 80 10 telefonoan utz daitezke kontsultak.

■ TOPAKETAK

Mugi psikomotrizitate zentroak gurasoen topaketak antolatu ditu. Bi talde izango dira, 0-2 urtekoen gurasoentzat. Bestalde, 9 hilabetetik 5 urtera arteko umeentzat psikomotrizitate saioak izango dira. Aurreinskripzioa uztailearen 10a baino lehen. Tel.: 943 77 08 05.

■ ITURRIPEKO  
KIROLDEGIA

Iturripeko kiroldegia ondoko ordutegia izango du udan: uztailean, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 21:30era, eta zapatuetan, 8:30etik-13:30era. Abuztuan itxita egongo da.

■ IPUIN LEHIAKETA

Ereintza Elkarteak Erreteria Hiria XX. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Hiru orritik zortzira arteko luzera izan beharko dute lanok. Ondoko helbidera bidali: Juan de Olazabal kalea, 23. 301 P-K, Erreteria. 100.000 pezetako lehen sari bat emango da.

# Soinu teknikaria

## behar du ARKOk

egun erdirako lanpostu bat betetzeko

BALORATUKO DA:

- Soinu teknikari tituluduna izatea.
- Lan esperientzia.
- Windows sistemaren ezagutza.
- Gidatzeko baimena.
- Derrigorrezkoa da euskara ondo jakitea.

Kurrikuluma uztailearen 18rako Arkoren egoitzara ekarri.  
ARKO • Otalora lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE



Gizonak  
Emakumeak

Jantziak

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

astea bi hitzetan

■ Kooperatiben legea

1993ko kooperatiben legearen zenbait artikulua aldatu egin dira, legebiltzarraren erabakiz.

Onartutakoaren arabera, hemendik aurrera hiru bazkide nahikoa izango da kooperatiba bat sortzeko, eta ez bost, orain arte moduan. Kooperatiba eratzeke behar den diru-kopurua ere murriztu egin da. 500.000 pezeta nahikoa izango da. Kontratazioari dagokionez, hemendik aurrera, aldi baterako bazkide eta soldatapekoen kontratuek ezingo dute lanordu guz-

tien heren bat gainditu.

■ Langileak ikasten

Datorren irailetik aurrera, lanean ari den edonork ikasketak aukera zabalagoak izango ditu, LH hezkuntza mota eskaintzen duen homologatutako edozein eskolatan ikasketak doan egin ahal izango baititu. Gainera, ez du titulu beharrik izango. Hau da, lanean ari den edonork sartu ahal izango da mota horretako ikaskuntza egitasmo batean.

Europatik bideratutako egitasmoa da hau, Hobe-

tuzek diruz lagunduta.

■ Alarma faltsua

Joan den larunbatean, 22:50ak aldera, Garibai kalean eztanda egiteko prest zegoen auto bat zegoela esanez, deia jaso zuen Ertzaintzak. Taxi eta autobus geltokien artean zegoela esan zuen telefonoz pertsona batek. Hori dela eta, Ertzaintzak Garibai etorbidea itxi egin zuen. Izan ere, autoak 10 minutura eztanda egingo zuela esan zuen.

Baina, azkenean, alarma faltsua izan zen.



Argazkia: Berrigara

■ Autobideko lanak ikusten

Eibar-Gasteiz autobideko lanak ikustera joan ziren Bergarara ostiralean, foru aldundiko ordezkariak. A zatiko lanak egin ari dira han. Amillagan hasi eta Eibar arterainokoak, ia 5 kilometro. Lau tunel eraikitzen ari dira. Horiexek dira, obraren aurrekontuaren (9.850 milioi pezeta) %80, beraz, zatirik garrantzitsuena. Ostiralean amaitu zuten Lezarriko tunela. Bisitarien artean, Roman Sudupe diputatu nagusia eta Antton Jaime garraio eta errepideetako alduna izan ziren.



Ez gara errazak asetzen, baina orain ezin gara kexatu. Lezetxiki industen genuenean, Vespa koskor batean Atauna joan, Barandiaran atzean hartu, atzeko parrillan maleta, hanka tartean morrala jarri eta Arrasatera joaten ginen. Hantxe egoten ginen hilabete osoa eta gero buelta. Orduan itzulerakoan etortzen zitzaigun furgoneta bat, ateratako gauza guztiak San Telmora ekartzeko, baina gu geu berriro motoan bueltatzen ginen. Beste garai batzuk ziren, sosik ere ez genuen eta.

JESUS ALTUNA

Argia

(2000ko uztailearen 9a)



**URONDO**  
Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

## IFAM, agur

52 urteko bizitzari agur esan dio Feliciano Aranzabal enpresak. Astelehenean hasi ziren eraikina botatzen, 210 etxebizitza egiteko. Orain, lantegi modernoagoa izango dute Zigorrolako eremuan bertako langileek. Hori bai, urte batzuk pasatuko dira IFAMek utzitako lekuan beste eraikin bat ikustera ohitu arte.



### HISTORIA

1948. urtean eraiki zen IFAM-en aurreneko zatia, errepide-tik ikusita, semaforotik gertuen dagoen zatia. Lau urte geroago atzeko aldetik zatixo bat gehitu zitzaion, eta hortik bi

urtera handitu zenarekin, orain ezagutzen dugunaren erdia izatera heldu zen.

Lantegia martxa onean zihola eta, 1962. urtean atzeko aldetik beste solairu bat

gehitu zitzaion eta hiru urte geroago, berriz, beheko eta lehenengo solairuak. 1978. urtean egin ziren azkenengo handitze lanak, guk ezagutu izan diogun itxura eman arte.

## EAJ eta ELAren jarrera kritikatu dute solidarioek

“EAJk eta ELAk jarrera epela izan dute”. Halaxe adierazi zuten asteazkenean gose greban egin diren bi solidarioek.

Emandako prentsaurrean azaldu zuten, EAJk eta ELAk uko egin diote solidarioek bilteko egindako eskaerari eta erabaki horrek “harritu eta samindu” egin ditu. Interes politikoak presoaren eskubideen gainera jartzea egotzi diote EAJ alderdiari. Horrez gain, PP, PSOE eta UGTren-hutsunea igarri izana salatu zuten.

Azaldu ez zirenen parean, berba egiteko eskaerari baiezkoa eman dutenak ere aipatu zituzten. Hauen artean, batzuk aipatzearen, CCOO, Kooperatibetako Plataforma, EA, EB,



Euskalan eta Elkarri.

Gose grebak iraun duen 27 egunetan 3.000 sinadura batu dituzte, 3/4ak beteta dituzten presoaren karteletako zuzendariei eta karteletako epaileari bidaltzeko.

Horrekin batera, gose grebaren ondorioz goragaleak, lo

hartzeko ezintasuna, pisu galtzea eta bestelako kalteak jasan dituztela kontatu zuten; eta eurek jasandakoa ikusita, euskal presoek baldintza askoz ere gogorragoak jasaten dituztela gogorazi zuten. Gose grebak iraun duen egunetan egindako ekimenen berri ere eman zuten.

## Makina-erremintan inbertitzekotan

Mondragon Unibertsitateak eta Idekok, Teknologia ikerketa zentroak, elkarlanerako hitzarmena sinatu berri dute lau urterako. Helburua, makina-erremintan aplikatu daitezkeen teknologiak garatzea da. 1.000 milioi pezeta baino gehiagoko inbertsioa egingo da denbora horretan eta 19 proiektu garatuko dituzte. MUko zortzi irakasle, ikasleak eta bekadunak arituko dira eta kurtsu bukaerako 20 proiektu eta 8 doktore tesi egingea espero da.

Ideko Teknologia Zentroa 1986an eratu zen; MCCren barruan dago eta makina-erremintan espezializatua dago.


## Istripua Fagorren

Fagor Hozkailuetan, San Andresen, ezbehar bat gertatu zen astelehen arratsaldean. 22 urteko langile atxabaltar batek lau hatzamar moztu zituen plastikoa ebagitzeko erabiltzen den makina batean.

Zauritua Donostiako ospitale batera eraman zuten eta, dirudienez, lau hatzamarretatik hiru, behintzat, salbatzeko modua izan lezake.

# Loramendi kirolak

Txartel hau aurkeztu eta zapatilak erostean kamiseta opari



Uztailaren 31 arte

## Ipar Euskal Herrian barrena

Udako oporrak hurbiltzen ari dira eta guztion ahotan dago aurtengo oporretarako bakoitzak dituen egitasmo eta proiektuak. Batzuek aisialdirako aprobetxatzen dituzte udako oporrak, beste batzuek lana egiteko... Badaude, baina, lana eta aisialdia uztartzeko proiektuak ere.

Horixe da Seaskak eskaintzen duena. Eta AEDk hori egiteko bidea eskaintzen die mondragoetarrei. Ziburuko ikastolan lan txiki batzuk egiteko asmoa dute (hormak jaso, hauek pintatu, altzairuak lekuz aldatu...) eta horretan laguntzeko auzolandegiak antolatu ditu Seaskak. Egun horietan denetarik egiteko aukera izango da: astegunetan, goizez ikastolako guraso eta lagunekin lan egingo da, eta arratsalde, mendi edo itsasora irteerak, txangoak eta hainbat ekintza egingo dira.

Bestalde, astebukaeretan bi eguneko irteerak ere izango dira; horrela, barnealdeko txoko ezkutuak bisitatu zein ezagutzeko aukera emango da.

Auzolandegi hauek 15 egunekoak izango dira, bi txandatan antolatuta. Lehenengoa, uztailearen 16tik 30era eta bigarrena, uztailearen 30etik abuztuaren 13ra. Plaza mugatuak daudenez, deitu lehenbailehen izena emateko 943 71 21 17 telefonora (Ander) edo pasa zaitez Arrasateko AED elkartetik.

## Eskola Politeknikoa handitzeko hitzarmena

Gauzatu da Arrasateko Udala eta Mondragon Unibertsitatearen arteko elkarlana. Sinatze ekitaldi baten bitartez formaldu da, pasa den astean udalbatzarrak onartu zuena.

Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Xabier Retegi Eskola Politeknikoko zuzendariak, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak eta Felix Ormaetxea Giza-bidea Fundazioko zuzendariak sinatu dute hitzarmena aste honetan.

Onartutakoaren arabera, 2003. urtera bitartean 250 milioi pezeta emango dizkio Arrasateko Udalak GARAI A egitasmoari. Eskola Politeknikoaren beharrak asetzen laguntzeko erabiliko da diru kopurua: ikasgelak eta liburutegi berria eraikiko dira, Iturripeko kiroldegia eta eskolako lantegien artean.



Astelehenean sinatu zuten hitzarmena Arrasateko udaletxean.

### LAU IKASGELA

Lau ikasgela izango dira, gutzira. Bakoitzak 100 ikasle-erentzako lekua izango du. Liburutegian, berriz, liburu eta dokumentuez gain, Internet erabiltzeko aukera ere izango da. Era berean, eta dagoen aparkaleku eskasia kontuan hartuz, 130 bat aparkalekurentzako lekua egokitzea ere adostu da.

1.000 milioi pezetako aurrekontua dute egin beharreko lanek, 650 milioi erai-kinarentzat eta geratzen dena bestelako azpiegiturentzat. Orain, proiektua egiten ari da LKS enpresa; irailerako bukatuta egotea espero da eta urte bukaera baino lehen hasiko dira lanak egiten. 2002. urteko otsailerako bukatuta egotea aurrez ikusi da.

## Lezetxikiko langileak

Ikasturtea amaitu berri dute, eta etxean geratu ordez, motxila hartu eta Arrasateraino etorri dira Gipuzkoa osoko 22 gazte. Hernani, Donostia, Lasarte, Ezkio-Itsaso, Errenteria, Elgoibar... izan dute abiapuntu. Datozen bi asteak Arrasaten pasako dituzte 16tik 18 urtera arteko ikasle hauek.

Lezetxikiko kobazuloan Aranzadi elkarteko kide-



Alvaro Arrizabalaga da arduraduna.

ak egiten ari diren indusketa lanak erraztea da euren egin-

beharra. Inguru haiek txukunduko dituzte: aterpeak egin, eta hesi bat eta hainbat seinale ipini.

Goiza lanean igaroko dute. Arratsaldean, berriz, irtenaldiak egingo dituzte bai Aizkorriera edo Debara. Ikastarorik ere egingo dute eta baita Museo Arkeologikora bisita ere.

Hirugarren urtea da Lezetxikiko auzolandegiak antolatzen direla.

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**Etxebizitzak salgai Antzuolan**

90m<sup>2</sup> erabilgarriak

**20.000.000 PTA**

Lehen mailako materialekin egin. Leku ezin hobea.  
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**  
Tel.: 943 73 05 25

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

## Abuztuan Alde Zaharrean lanean

Olarte kaleko goialdeko lanak bukatzeko argiteria jartzea besterik ez da falta. Abenduan hasi ziren lan horiek eta irailan jarriko den argiteriarekin bukatuko dituzte. Horrela, Alde Zaharra oinezkoentzako gune bihurtzeko lanen aurreneko zatia eginda dago.

Uztaila eta abuztuan zehar, baina, ez da atsedunik izango.

Arbolapetatik San Frantzisko elizaren artean segituko dute lanek. Lanen bigarren zatia da hauxe. Zati horretako azpiegiturak dagoeneko lur azpian sartuta daude; udan zehar, beraz, kalearen galtzadarriak (errepidean) eta harlausak (espaloian) jarriko dira.

Plaza berari dagokionez, orain duen aldapa kentzeko, apurtxo bat igoko da; horretarako, plazara sartzeko harmaila batzuk jarriko dira.

Uztailean, beraz, hortxe ikusiko ditugu langileak.



### AUTOMOBILENTZAT

Automobilak plaza ondotik sartu-irten ahal izango dira Alde Zaharrera. Bestalde, kale horretako bizilagunek eta zamalanak egin behar dituztenek San Frantziskotik Arbolapetarantz jo beharko dute; beraz, orain arteko zentzua aldatu egingo da; San Frantziskon, berriz, galtzadarriz eginiko biribil bat egingo da, autoen joan-etorria bideratzeko.

Kale horretako kantoiak ere modu berean txukundu-ko dira.

Olarte kalearekin jarraituz, Juan Carlos Guerra plazako espaloia konpontzeko asmoa ere badu udalak. Horrekin, San Frantzisko kaleko lanak amaitu egingo dira. Hala ere, dagoeneko sartu-irten ahal da aipatutako kale horretatik. Bigarren zatiko lan hauek azarorako amaitzea aurrez ikusi da.

## Presoen martxa

“Euskal Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala” datorren hilaren 12an helduko da Mondragoera, Mecara. Senideak-ek bultzatutako Martxa honen barruan, Mondragoeko 45 taldek hartuko dute parte, eta bakoitzak 100 metro egingo ditu; tartean, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS sindikatuek eta Arrasateko Kontseilu Sozialak, Mondra Futbol Taldeak, alderdi politikoek, kultura taldeek eta Bonba taldeak. Hain zuzen ere, Aitor Lopez Rekartek azpimarratu nahi izan du “horrelako ekimenen garrantzia presoei indarra ematen dietela. Legeak esaten duena ez da betetzen eta presoen eskubideak ez dira kontuan hartzen. Kartzeletako egoera salatze-ko balio du ekimen horrek, kontuan izan behar delako preso horiek ez direla preso sozialak”.

Eskoriatzatik etorriko da Martxa eta arratsaldeko 18:00etan egingo zaio ongi etorria. Herria gurutzatuko du Eroskiraino eta handik Oñatirako bidea hartuko du.

## Sustu galanta



Zarugalde kaletik zetorrela ia-ia Aramaio errekarero-ri zen argazkiko Volkswagen Polo urdina. Peugeot 205 batek eraginda hartu zuen errekarako bidea, hala ere, hesiak eutsi egin zion eta aurre aldeko gurpil bat zintzilik bai, baina hortxe geratu zen guztia.

Kaltetuak gertatutakoa ikusi duen lekukoren baten bila ari dira.



### ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

## U N Z U E T A

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrilan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

# IMANOL GALFARSORO (GUILDHALL UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)

## “Proiektu bateratuak berriz

**Euskal Kulturaren Ikasketen Nazioarteko I. Jardunaldiak egin dira Londresen. Aretxabaletar bat ibili da buru-belarri jardunaldi hauek antolatzen: Imanol Galfarsoro, errementariaren semea.**

**Oso gazte zela, Frantziara joan zen. Hango Tolosan Zientzia Hispanikoak egin zituen bitartean, Bordelen Euskal Ikasketak ikasi zituen. Donna ezagutu, gaur egungo emaztea, eta Londresera joan zen bizitzera. Londresko Guildhall Unibertsitatean dihardu gaur egun, gaztelania eta hizkuntzalaritza irakasten. Adurra dariola hitz egiten du Miren zortzi hilabete-ko umetxoaz.**

**— Baduzu loturarik Aretxabaletarekin?**

— Bai. Familia eta lagunak hantxe ditut. Hona datozenean, bisita egiten didate. Pirinioetan ere izan naiz lagunekin.

**— Itzultzeko asmorik bai?**

— Gogorik ez zait falta, baina beste asko itzultzen ez diren bitartean, ni ere ez naiz etxeratuko.

**— Nola ikusten duzu Euskal Herria?**

— Nolabaiteko anbibalentziarekin. Batzuetan erromantizismoz. Eta beste batzuetan, nazkaz, jendea ez delako gai elkartu eta lana batera egiteko. Zikoitasunak sekulako amorrua ematen dit eta horrela idatzi dut Interneten, IBS-ren (Institute of Basque Studies) forumean.

**— Zer harreman duzue Londresen bizizareten euskaldunok?**

— Ehun bat lagun gabilta bueltaka euskal gunearen inguruan. Oraingo z bulego bat utzi digute Oxford Housen, baina

Euskal Etxea eraiki guran gabilta. Egiten ditugu gauzak. Orain, adibidez, Euskal Astea antolatu dugu eta erantzun ona izan du: Fermin Muguruza etorri da, ESAITekoak eta Kontseiluko kide bat, besteak beste.

Horrekin bateratsu, berriz, Euskal Kulturaren Ikasketen Nazioarteko I. Jardunaldiak eratu ditugu Guildhall Unibertsitatean, Londresen bertan.

**— Nolan jardunaldiak?**

“Hiru hilabete ‘Demokratak eta Biolentoak’ liburua ingelesera itzuli nuen eta Interneten jarri nuen”



# A) "har ditugu"

— Gure departamentu buruak zerbait berezia egin nahi zuen Euskal Herria gai hartuta. Horretarako 3.000 libera jarri zituen gure esku. Hori zela eta, Kiko hemengo lagun bat eta biok hasi ginen pentsatzen jardunaldi batzuk antolatzeko aukeraz. Pentsatu eta egin. Kostata, hori bai. Izan ere, urtebete ibili gara hau gertatzen.

— **Nondik nora jo nahi izan duzue?**

— Oraingo jardunaldi hauek, lehenengoak, oso orokorrak izan dira. Bagenekien oraingo honetan inportantea biltzea zela, hastea. Eta hori egin dugu: abiatu. Etorkizuneari antolatuko ditugunak zehatzagoak izango dira.

— **IBS, Euskal Ikaskuntzen Institutuaren babeserabili duzue jardunaldi hauek antolatzeko. Zer da IBS?**

— Orain bizpahiru urte sortu zuten hiru-lau bat lagunek. Guk, berriz, Forum Basque Critical Studies elkarteak sortu genuen hemen. Bi elkar-teak batzetik sortu da gaur egungo IBS.

Teknologia berrien garrantzia landu eta gureak eta beste batzuen lanak sarean argitaratu nahi ditugu IBSn. Gure hizkuntzak ingelesa eta euskara dira.

Egun batean Joxe Azurmendiren "Demokratik eta Biolentoak" liburua irakurri nuen eta txundituta geratu nintzen. Erabaki nuen hura ingelesera ekarri eta Interne-

ten jarri behar zela. Hiru hilabete egin nuen itzulpena eta orain hor dago, sarean, edozeinek kontsultatzeko moduan. Jende asko sartzen da kontsulta egitera, berdin Australiatik edo Pakistandik. Ameriketako militarrek ere sartu izan dira.

— **Kezkatuta zaude, beraz, teknologia berriekin.**


— Oso. Jendea ez da konturatzen Internet askoz ere merkeagoa dela eta ikasleentzat askoz ere errazagoa dela beren lanak hor argitaratzea. Zoritxarrez, irakaskuntzako jendea oraindik ere kostatu egiten zaio hori ikustea.

— **Zer eragin izan lezaketekite jardunaldi hauek?**

— Jendea konturatu egingo da teknologia berriak garrantzi handikoak direla jakintza zabaltzeko, eta Euskal Herrikan kanpo bizi garen euskaldunok ere badugula zer eskainirik. Horrekin batera, aukera eman diezagukete jende askorekin hitz egin eta proiektu bateratuak egiteko.

Kontuan izan laurogeitik gora lagun elkartu garena lehen jardunaldi hauetan. Batzuk Renotik etorri dira. Iowa, Kalifornia eta Floridako hainbat unibertsitate ere etorri dira. Baita Paris, Londres, Surrey, Edinburgo eta Euskal Herrikan ere. Harremanak majo landu ditugu hemen. Seguru nago hemendik aterako dela proiektu bat baino gehiago. ■

## Emakumeentzako "Makina erreminta eta doikuntza ikastaroa"



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain lan-jantziarekin.

**Makina erreminta eta doikuntzako oinarrizko tekniketari emakume talde bat prestatuko da, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko.**

### Jantzi buzoa zuk ere

- **Norentzat:** Emakume langabeentzat.
- **Ordu kopurua:** 400 orduko ikastaroa.
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 17:30era.
- **Noiz:** 2000ko irailaren 19tik martxoaren 23ra arte, asteazkenero.

**Izena emateko epea: 2000ko uztailaren 21a arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.**

**Antolatzailea:** Enplegu Zerbitzua  
**Laguntzailea:** Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■  
Enplegu Zerbitzua ■

# Udalekuak nahiago bidaiak baino

Oporrekin batera, aisialdia eta lasaitasuna, baina ez pentsa, buruhaustea ere etortzen zaizkio haur eta gaztetxo askori: zer egin, nora joan, nola antolatu ahalik eta hobetoen pasatzeko... Askorentzat, galdera horiei erantzuna udalekuak dira. Umetan hainbat urte udalekuetan eman ondoren, askori irrika hori barruan geratzen zaie eta begirale egiten dira.

**A**rrasaten, udarako ekintzak antolatzeko tradizio luzea dago. 70. hamarkadan, bi egitasmo sortu ziren Arrasaten. Batetik, Orkatz Eskaut Taldearen ekintzak: bere sortzetik, 1970. urtean, talde honek urterotero antolatu izan ditu udalekuak eta irteerak, iaz arte. Hainbat motatako ekintzak egiten zituzten, baina plater sendoenak bi ziren: "Tradizioa ziren Gabonetako eta Aste Santuko mendi irteerak. Land Rover edo furgoneta bat alokatu eta hantxe joaten ginen, 12 urtetik gorako haurrak eta begiraleak, guztiok batera: 50

edo 60 bat lagun izaten ginen", gogoratzen du Orkatzeko partaide Mikel Orobengoak. Iristean, taldetan banatu eta taldekako jokoak eta jarduerak egiten zituzten, baina baita batera egitekoak ere. Aurten ere ari dira irteeraren bat edo antolatzeko gogoarekin, baina ikusi egin behar posible den.

Orkatz Eskaut Taldean 9 bat begirale ari dira gaur egun. Talde horrek astero antolatzen du zer edo zer haurrentzat; lan konstantea da. Eta begirale izateko, aurretik ume taldeko kide izan beharra dago.

Bestalde, Orkatzen garai berberean, San Frantzisko Parrokia hasi zen udaleku



itxiak antolatzen, Josu Elorzaren gidaritzapean. Adin desberdinetako hainbat arrasatear pasatu dira Oliteko udalekutik: "Nire izeba ume eta begirale izandakoa da, eta ni neu ere bai", dio oraingo antolatzailleak, Irantzu Lopez de Bergarak. "Guk musutruk egiten dugu lan, eta oso zaila da horretarako prest dagoen jendea aurkitzea; aurten, 40 ume

eta 12 begirale joango gara, guztiak udalekuetan ibiliak". Zapatu honetan bertan irten-go dira Oliteruntz, tradizioari eutsiz.

## OHITURA KONTUA

Egia esan, udalekuetan ibiltzetik begirale izaterainoko prozesu hori naturaltasun osoz bizi izan dute gazte askok. Hauetariko batek, luzaroan







### UMEAK BEGIRALE

Aurten, 350 haurrek eman du izena udako ekintzetarako, eta 40 begiraleren ardurapean ibiliko dira bazterrak nahasten. Horiatariko askok eta askok, udalekuetan ibiltzeko adina pasata ere, giro horretan jarraituko dutela apustu egin genezake: begirale izango dira.

Hori da Nagore Llodio, Jonathan Perez eta Alazne Ruiz de Munainen kasua. Gazte hauek 18tik 20ra bitartekoak dira, eta udalekuetan ibiliak. Orain, begirale izateko atarian daude. Zergatia galdetzen zaie-nean, honela diote: "Oroitzapen oso onak ditugu, eta begiraleek eurek ere ondo pasatzen zutela ikusten genuen. Beraz, zergatik ez animatu?" Nagore eta Jonathan prestatzen ari dira oraindik, baina Alazne badabil dagoeneko: "3 urtekoen begirale moduan dihardut. Neskatilatan urtero-urtero ibiltzen nintzen udaleku irekietan, eta aurten aproba egitea erabaki dut", dio.

udalekuetako ume eta baita begirale izandakoak, honela azaltzen digu: "Udalekuetan ibiltzeko ohitura hartzen duzunean, gauza normalena iruditzen zaizu begirale izatea. Trantsizio laburra da: 14 urtera arte-edo dago udalekuetan parte hartzeko aukera, eta, ondoren, ikastaro labur bat egin eta berehala has zaitezke begirale lanetan", diosku berak.

Arrasatearrek aukera paregabea izan dute trantsizio hori bizitzeko. Orkatzek eta San Frantzisko Parrokiak hasitako lorratzak jarraipena izan

zuen, herrian antzeko beste ekimen bat sortu baitzen. 1989an, hainbat irakaslek euskara ikastetxeen eremutik zabaldu beharrean zegoela sumatu zuten. Eskakizun hori AED euskara elkartearen belarrietara heldu zen, eta hor jaiotzen Txatxilipurdi Aisialdi Elkarte. Urte hartan bertan antolatut zituen lehenengoz udaleku irekiak: umeak hainbat jolas egiten zituzten, baina etxean egiten zuten lo. Udaleku itxiak, aldiz, 1995ean jarri zituen abian. Hauetarako izena eman beharra dago, eta herri osora zabaltzen da.

### EZ DA MAUKA

Nagore udaleku irekietan ibiliko da, eta Jonathan beste bi begiralerekin batera Beintzako udalekuetara joango da. "Pazientzia eta imajinazioa erabiltzeko gomendatu digute", esaten dute biek. "Gainera, umeekin gustura ibiltzeko apur bat ume izan behar duzu zeuk ere", gaineratzen dute.

Hori bai, gustura badabil-tza ere, umezaintzan jardutea ez da mauka, lan gogorra baizik; horrela diote ahobetez gure hiru lagunek. Jonathanek Beintzako egoitza ikustera joan eta beste lankideekin bile-rak egin behar izan ditu: "Zal-dian ibili, bizikletan irteerak egin, gaubelak... Hori guztia prestatu egin behar da, eta lan mordo da", aitortzen du.

Izan ere, azken batean lana da, ardua handikoa gainera: "Oraingo umeak gu ginena baino bihurriagoak-edo iru-ditzen zaizkit, zaila izango da euren atzetik ibiltzea", esaten du Nagorek. Eguneroko arazo-erik egitea ere gerta dai-teke: "Akanpadan joan ginen eta, lotan geundela, kanpa-denda haizeak eraman zuen. Begiraleak esnatu gabe, guk geuk dendaren atzetik irten eta bere lekuan ipini genuen", gogoratzen du Nagorek. Horrelakorik edo okerragorik gertatuz gero? "Inprobisatu egingo dugu", diote. Arazoe-tan baino, zain dauzkaten momentu onetan pentsatzea dute nahiago, eurak ere uda-lekuetara doazelako. ■



Leire Kortabarría



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirodegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia Institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEdia Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



## ESKERRIK ASKO, BIXENTE!

Sortzaile, lehendakari, diruzain... Zer lan ez zuen egingo Bixente Azkaratek Toki-Argi Erretiratuen Elkartearen eman zituen hamar urteetan!

Eskerrak emateko, oraingo zuzendaritzak bazkaria antolatu zuen bere omenez. 48 lagun bildu ziren.



## ESKUA BETE ARTILE

Euskal Herriko ardiei ilea mozteko garaia heldu zaie. Gu Aloña aldera joan ginen, Aierdi baserriko artzainari argazki hau ateratzera. Ez da negurako beroki faltan izango, 300 bat ardiri moztuko dio-eta ilea.



## AUPA ARRASATEKO ROCIOA!



Andaluziako eguraldi bikainaren parekoa izan genuen Arrasaten joan den asteburuan: egoera ezin aproposagoa Al-Andalus elkarteak Rocioko Erromesaldia ospatzeko. Gainera, Arruena parkean dantzaldiak eta jaia izan zituzten.



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



## Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

*Eskaintza berezia:*  
solariumeko 10 saio 6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
ARRASATE

## HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

## ZORIONAK EZKONBERRIEI!



Argazkiak: Foto Bideo Zapping



Udaberrian, ezteiak loran. Guk hauek biak aurkitu ditugu: Maribel eta Manu ekainaren 17an ezkondu ziren Uribarrin. Oraindik ez dute ezkon bidaia-rik egin, baina itsas bidaia bat egitekotan omen dira. Bestalde, Jose Luis eta Ana apirilaren 26an ezkondu ziren, Dorletan, eta Cubaraino joan ziren ezkon bidaian.



## A ZER PIURA!

Espero dezagun Roberto Lopez, lehen planoan lurreetan etzanda agertzen den mutikote hori, argazkian baino dotoreago agertuko dela uztailearen 26an bere emaztegaiaren aurrean. Tira, hau lagunek egin zioten despedida izan zen, eta...



MARKO-JARTZEAK  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE



## GURASOAK TURISMOAN ETA MUTIKOAK FUTBOLEAN

Riminin, Italian, txapeldunak izan ziren arrasatearrak. 40 bat guraso eta jokalarik joan ziren Adriatikora Sanjoanetan. Etxarri eta Segurakoekin, Kroazia eta Italiarren aurka aritu ziren Euskal Herriko ordezkariek. 14-15 urte bitarteko mutikoez garaikurra etxera ekarri zuten eta ohi bezala, Maalako biribilean bira osoa eman zuten. Zorionak!



## ANGLIRUN GORA

Asturias aldera joan zen mondragoeko lagun talde hau, Angliruko mendi ikusgarria bizikletan igotzeko asmoz. Eta igo ere, igo zuten, begira, bestela, %23ko malda gogorak euren zainetan sufritu ondoren, geratu zitzaizen gorputz fina.



## Arrasate Presseko harpidetza berriztu nahi duzula?

Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?  
ORAINTXE DUZU GARAIA



Gure kontu korrontean 3.000 pta.ko diru sarrera egin dezakezu uztailaren 21a baino lehen, kontu korrante zerbaki hauek bategan:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoa egitean garbi adierazi, mescedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badioz, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel.: 943 71 23 90 • Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE

# Gipuzkoako kirolari onenak herrian daude

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariek berriz ere irabazi egin dute. Eibarko Unbe-ko pistetan egon ziren asteburuan eta urrezko hiru domina ekarri zituzten handik. Junior mailako Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketa zegoen jokoan eta mondragoetarrek euren onena eman zuten.

Jonathan Perezek, Unai Sarabiak eta Oskar Gavilanek urrezko domina bana irabazi zuten. Guztiek zituzten txapelketan parte hartzeko gutxieneko denborak; Unai Sarabiak 11"29ko denbora zuen 100 metroko lasterketan eta Espainiako gutxieneko denbora 11"20koa da. Eibarren, berriz, 11"27ko



Oskar Gavilan, Jonathan Perez eta Unai Sarabia.

denboran egin zuen lasterketa, bere marka baino bi ehuneko gutxiago.

Jonathan Perezek 4 metroko jauzia egiten du pertikarekin, Espainiako gutxieneko

marka baino 30 zm gutxiago. Berak Eibarren Espainiako gutxieneko denbora egin zuen: 4'30.

Azpimarratzekoa da, gainera, Arrasate Kirolak Atle-

tiko Taldeak orain arte zuen marka hautsi zuela Jonathanek Eibarren. Berak pista estalian 4'20ko jauzia egin zuen.

Horrez gain, Oskar Gavilanek disko eta pisu jaurtiketan irabazi egin zuen. Urrea lortu zuen 2 kiloko disko jaurtiketan: 34 m eta 62 cm. ko jaurtiketa egin zuen; Espainiako gutxienekoa 36 metrokoa da, horrela segituz gero, laster iritsiko da marka horretara.

Unai eta Oskarrek urrea irabazteaz gain, euren marka pertsonalak hobetu zituzten. Baina, zilarra ere irabazi zuen Oskarrek. Pisu jaurtiketan izan zen. Zazpi kiloko diskoa 10 m eta 84 cm. ko distantzira jaurtiki zuen.

Zorionak, bada, guztiei!

## Arrasatearrak xake-mateka

Joan den asteburuan Zumaragara joan ziren San Andres Xake Taldekoak partida azkarren txapelketa jokatzera. 22 lagunek hartu zuten parte eta hauetako lau arrasatearrak izan ziren: Txema Hernando, Roberto Villar, Jabier Aspe eta Roberto Andres. Laurek maila paregabea erakutsi zuten; txapelketa irabazteaz gain, euretako beste bi lehen tokietan gelditu ziren.

Txema Hernandok irabazi zuen txapelketa. Bigarren Roberto Villar izan zen

eta Javier Aspe, ostera, laugarren.

Eta larunbatean banaka-ko xake txapelketa jokatu bazuten, igandean taldeko partida azkarren txapelketa jokatu zuten Azkoitian. Taldea Txema Hernandok, Roberto Villarrek, Roberto Andresek eta Iban Mansok osatu zuten.

Hamaika laukotek jokatu zuten eta mondragoetarrek seigarren sailkatu ziren. Lauretatik Txema Hernando ibili zen ondoen. Berak 10 partidetan 8 puntu batu zituen.

## JMA lehenengoa Tolosan

Lehen eta bigarren urteko txirrindulari kadeteak Tolosan izan ziren joan den asteburuan Araroz saria jokatzen. Oso lasterketa azkarra izan zen: 40 km/orduko eta guztietan azkarrena Zumaiako taldeko Iban Iriondo izan zen; bere atzetik JMA taldeko Iñaki Juldain sartu zen. Zazpigarren Aitor Elorza (JMA) izan zen eta Raul Blazquez (JMA), berriz, hamaikagarren. JMA taldea lehenengoa izan zen taldeko sailkapenean. Aste honetan Oñatira joango dira.

Gazte mailako Fagor taldekoek ez zuten ez zorterik

izan larunbatean Elgoibarren. 90 km. ko lasterketa izan zuten jokoan, baina 110 txirrindularietatik 64 baino ez ziren helmugaratu. Fagorretik ere lauk hartu zuten parte, baina Eneko Perezek jausi eta min hartu zuen besoan; Aitor Odriozolak Azkarate igotzea lortu zuen, baina ondoren lasterketa utzi zuen; Imanol Solis eta Josu Beitiak, berriz, lasterketa bukatu zuten. 44. eta 45. izan ziren.

Asteburu honetan Mendaron dute lasterketa; Gipuzkoako linea txapelketa jokatuko dute gazte mailakoek.

**GORKA**

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
Larunbatetan:  
08:00 - 14:30

**ILEAPAINDEGIA** **SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

**LUZAPENAK**

**ARAOTZ Merenderua**

Ingurune zoragarrian  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26

# Mondrak bazkide kuotak igotzea proposatu du

Mondra Futbol taldeak, urtero bezala, urteko datuak eman zituen joan den asteazkenean, prentsaurrean. Eta daturik aipagarriena bazkide kuoten igotzaren proposamena izan zen: %5. Horren arabera kuotarik garestiena 10.500 pta.koa litzateke eta merkeena, berriz, 1.500, maila baxuenaren kuota. Datuak Patxi Yartzak eman zituen.

Jose Luis Ezkurra lehen-dakariak hurrengo denboraldian talde nagusian arituko direnak aurkeztu zituen: Har-kaitz Gainzarain, Txantxi, Murua, Juan Sanchez, Xabi Mondragon, Edu, Argider, Ekain, Solupe, Aspiazu, Muxi, Keixi, Koldo, Unamuno, Unai Arana, Oier Loiola eta Unai Rollan. Hala ere, Matiku, Berasaluze eta Asier Luengo entrenatzen hasiko dira eta gazte



Jose Luis Ezkurrak eta Patxi Yartzak hitz egin zuten prentsaurrean.

mailatik Illart, Pildain, Ibar-rondo, Urizar, Ezkurra, Zabaleta, Errasti eta Moreno igoko dira talde nagusiarekin entrenatzeko.

## AURREKONTUA

Aurten 14,9 milioiko aurrekontua izango du Mondrak eta zazpi talde izango ditu. Entrenatzaileak hauek izango dira:

lehenengo gazte mailan, Josu Zubia; ohorezko kadetetan, Azkargorta; lehen mailako kadetetan, Joserra Zabaleta; ohorezko infantiletan, Juan Luis Arkauz eta lehen mailako errejonaleko nesketan, Esti Loiti. Raul Leiba izango da lehen futbol taldeko entrenatzailea. Bigarren gazte mailan erabaki gabe dago.

## BALORAZIOA

Denboraldia baino aipagarriagoa litzateke Mondrak aurreko kiroltasunaren plakajaso duela Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik. Izan ere, lehen errejionalak ez du helburua bete eta ohorezko gazteek maila galdu dute. Hori dela eta, 2000-2001 denboraldirako helburu nagusia lehen errejionaletik igotzea izango da.

## ARRASATE HIRIA SARIA

Irailaren 6an hasiko da Arrasate Hiria saria eta bi asteburuz jokatu da, hilaren 23 eta 24an hasiko delako denboraldia. Dena dela, entrenamenduak lehenago hasiko dituzte, irailaren 14an; jarraitu, berriz, abuztuaren 28an egingo dute.



## Tour Lehiaketa Mundiala

Lizarralde Kirolak-ek ematen duen mendi bizikleta hau irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tour-eko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoi hau bete eta uztailearen 20a baino lehen Arrasate Press-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Jirabazlearen izen-abizenak uztailearen 26an jakinaraziko ditugu Arrasate Irratian. Adi egon!!

### Datu pertsonalak:

Jzen-abizenak: .....

Telefonoa: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

## Tour Lehiaketa

### Sailkapen orokorreko lehen hirurak:

1.- .....


2.- .....

3.- .....

### Mendiko irabazlea:

1.- .....

## Xabier Montoiaren emanaldia



Topagunea elkartearen Kultur Errota egitasmoak bere bigarren geldialdia egingo du Arrasaten, datorren egubakoitzean, hilaren 14an. Lehenengo aldia Xabier Amuriza ekarri zigun, eta oraingoan Xabier Montoia kantari gasteiztarra izango dugu bisitan. Zuzeneko emanaldia eskainiko du Jaizale tabernan, 22:30ean, eta doan izango da.

Bertan, "Lagunak, adiskideak eta beste hainbat etsai" izeneko bere hirugarren disko kantuak eskainiko ditu, besteak beste. Kritikoaren esanetan, barru-barrutik ateratako diskoa da hau, urteotan barneratutako milaka doinuen ondorio eta laburbiltzea.

# Abian Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen Saria

Euskarazko itzulpengintza sustatzeko asmoz, Kutxa eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, AED elkarteak Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen Laburren Sarietarako deialdia egin du. Lehen saria 200.000 pezeta-koa izango da, eta bigarrena, 100.000koa.

Aurtengo gaia ura izango da, eta horren inguruan edozein hizkuntzatik itzulpen lanen bat egiten duen edonor aurkez daiteke lehiaketara. Jatorrizko testuen lehen argitalpenak 1997, 1998, 1999 eta 2000. urteetan argitaratua egon behar du.

Testuen antzintasuna




egiazta egin behar da kasu guztietan. Luzerari dagokionez, gutxienez 15 eta gehienez 30 orrialde egin behar dira.

## AURKEZPENA

Lanak hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde bate-tik idatzita aurkeztu behar dira, haien jatorrizko testua erantsiz.

Lanak lelo batez sinatuko dira. Haiekin batera, gutunazal itxi bat aurkeztuko da, azalean lelo bera eta barruan egilearen datuak eta telefonoa aipatuz. Honako helbidera bidali behar dira, urriaren 31 baino lehen: AED Elkarte, Jokin Zaitegi Sari-keta. Pablo Uranga kalea 4, behea. 20.500 Arrasate. Finalisten zerrenda abenduaren 12an jakingo da.

## "Todo sobre mi madre" Monterron parkean



Aste honetan, aire zabaleko zinema emanaldian, *Todo Sobre mi Madre* filma eskainiko da. Pedro Almodovar zuzendari man-

txatarrak zuzendutako hamahirugarren filma da hau, eta baita osperik handiena eman diona ere, mundu osoko zinemagintzako

saririk inportanteenak irabaziarazi baitizkio filmak, tartean Hollywoodeko Akademiak ematen duen Oscarra.

## MELODRAMA

Film honetan, Almodovaren ohiko gaiak ikutzen dira luze eta zabal. Istorioa gustura negar egiteko moduko dramoi ikaragarri horietako bat da: Manuela, semea galdu ondoren, Bartzelonara doa semearen aitari berri ematera. Kontua da aita Lola bihurtu dela, eta ez dakiela semea zuenik ere. Zoritxarrak bata bestearen atzetik gertatuko dira.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78



**PEUGEOT**

Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**M  
ARENAZA**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07



OFFSET (MUSIKA TALDEA)

# “Zapatu honetan hasiko gara diskoa grabatzen”

Mondragoe musika taldetan herri benetan oparoa da, eta gora begira geratzen ez diren taldeak dira, gainera. Offset taldea, esaterako, Ibai Urteaga, Jon Gardoki, Iban Rodriguez, Aitor Fuentes eta Urtzi Apraizek osatzen dute, eta gurekin izan ziren berbetan, euren egitasmoen berri emateko.

## —Betidanik musika munduan?

—Bai. Gu bostok urte eta erdi besterik ez daramagu elkarrekin, baina eskarmentua badaukagu: Ibai eta Iban Aiotz taldeko partaideak ziren, Urtzik bere aitarekin jarduten zuen eta Aitorrek bere kabuz ikasi zuen bateria jotzen.

## —Nola definituko zinatekete?

—Musika kañeroa da, metal estilokoa edo. Metal estiloko talde gehienek izan dute eraginik guregan.

## —Zein da esku artean duzuen egitasmorik garrantzitsuena?

—Diskoa grabatzea. Zapatuan sartuko gara Shot estudioan. Irailetik aurrera kaleratzea gustatuko litzaiguke, baina badakigu disko bat grabatzen denetik kaleratuko duen bateren bat aurkitu arte denbora asko pasa litekeela. Dena dela, erabakia hartua daukagu. Bederatzi edo hamar abesti izango dira. Orain, momentuz, entseguetan gabiltza leporaino.

## —Diskoa grabatzeko erabakia hartzea ez da edonolokoa... Nolatan animatu zarete?

—Bageneukan abesti sorta dezentea, eta pentsatu genuen bazela garaia zerbait egiteko, denbora luzea



generamalako abesti berberak jotzen. Dena dela, oraintxe hasiko gara kontzertu gehiago eskaintzen, diskoa datorrela-eta.

## —Kontzertuetan jotzea ala estudio batean grabatzea, zer duzue nahiago?

—Mentalitate guztiz desberdinarekin joaten zara batera eta bestera. Biak dira oso inportanteak; kontzertua akaso gehiago, grabatu duzuna jotzeko gai zarela frogatzeko unea baita. Oso kontzentratua joan behar duzu, eta zailagoa da. Disko batean ez dira akatsak igartzen, zuzenean bai.

## —Diskoak zein neurriraino aldatuko du zuen etorkizuna?

—Jendearengana heltzea eta gure musika ezagutaraztea nahi dugu. Kontzertuak Arrasaten eta inguruko herrietan eman izan ditugu, eta gure asmoa hemendik kanpo ere jotzea da. Disko honek aukera gehiago emango digun itxaropena dugu. Gainera, Bilbo Hiria rock lehiaketara ere zer edo zer bidaliko dugu, ea zer gertatzen den...

# “Grabatu duzuna jotzeko gai zarela frogatzeko unea da kontzertua”

## aste gazte

### ■ TXARTELAK

• Uda honetarako baliagarri izango duzu nazioarteko gazte, ikasle edo aterpetxe txartela. Eskuratu nahi izanez gero, pasa zaitetz Gazte Bulegotik.

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Leonardo da Vinci bekak, Europako enpresatan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urteetan egon edo ikasketak bukatu berri izanik, lan esperientziarik ez dutenei zuzenduta. Epea: uztailak 14.

• Atzerrian, zuzenbide, ekonomia, hizkuntzak, ingurumena, teknologia, eta beste hainbat espezializazio ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: uztailak 19.

### ■ LEHIAKETAK

• Bilboko Udaleko Emakumearen Zerbitzuak “Emakumeak Kontari”, VII. Narrazio Lehiaketa antolatuta du. 18 urtetik gorakoei zuzenduta, gutxienez 5 eta gehienez 12 orrialdeko luzeran eta gai librean. Epea: irailak 29.

• Zumarraga-Urretxuko Udalak hainbat lehiaketa antolatuta du: argazki, pintura, bertsopaper eta komiki lehiaketa. Epea: irailak 8.

### ■ IKASTAROAK

• Aukeak udako kirol kanpaina antolatuta du. Aerobica, arku tiroa, eskalada, golf, mendi bizikleta, natur jarduerak, patinaia, esku pilota, squash edo tenis ikastaroak.

### ■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Intsumisioa edo objektzioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, Gazte Bulegoan emango dizugu paperak bidartzeko behar duzun informazioa.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

## asteko filma



### Stuart Little

Umeentzako. EEBB, 1999.

**Zuzendaria:** Rob Minkoff.

**Aktoreak:** Geena Davis, Hugh Laurie, Jonathan Lipnicki, Emilio Aragon (Stuarten ahotsa).

### HARIA

Littletarrak ametsetako moduko familia dira: guraso arduratsuak eta maitakorak, eta George, semetxoa. Baina, George txikia bakarrik sentitzen da, eta anaiatxo bat eskatzen die gurasoei. Little jaun-andreak umezurtegiara joaten dira, eta Stuart txikia begiz jo eta etxera eramaten dute, Stuart sagutxoa den ezaugarriari jaramonik egin gabe. Stuart gogo onez eta ilusio handiz joaten da bere familia berriaren besoetara, baina bereak eta bi pasa beharko ditu besteen onespina jaso baino lehen: bere anaiatxoak ez du uste bezain ondo hartzen, eta familiako katuak, Elur Bolak, gerra-deklarazioa egingen dio.

### KRITIKA

Ez pentsa Stuart Little Disney etxeko ekoizpena denik, nahiz eta enpresa erraldoi horretatik irtendako produktu asko eta asko baino eztiagoa izan. Belaunaldi askoren gozamaña izan den eleberri batean oinarritua dago honako filma, baina eleberriko alderdirik gogorrenak leundu edo ezabatu egin dira, lortu nahi zen maitasunezko eta familia baloreen gorai-patzezko mezu borobilari kalterik ez egiteko. Hala ere, meriturik ez zaio falta filmari: lehenik eta behin, efektu berezi txundigarriak ditu, Stuart eta beste abereak humanizatzen dituenean. Eta, bestetik, umeentzako filma izaki, helduak ere aise erakarri izana du bere alde. Gustura ikusteko ipuintxo.

## irakurle eta entzule

Iturria: Hire liburudenda

### diskoak

#### KAÑERIA 13 "Noche Sangrienta"



Askok itxaron ondoren, kalean da azkenik Kañeria 13 boskotearen lehen maketa. Azalean bertan aldarrikatzen dute %100

Garagartzako soinu beteta datorkigula diskoa; hori bai, punk eragin nabarmen-nabarmena hortxe dago.

Zazpi abesti dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Ezkortasun eta fatalismo ikutu ukaezinaz, biolentziaz, heriotzaz, erlijioaz, egonezinaz... dihardute letrek. Maketari titulua ematen dion abestia eta Hutsunea izenekoa dira, gure ustez, azpimarragarrienak, baina ziur guztiak entzun ahal izango ditugula Arrasateko eta inguruotako bazter guztietan.

#### FREE MUMIA ABU-JAMAL

**Bilduma** (Esan Ozenki-Gora Herriak)



Mumia Abu-Jamal, hainbat aldiz saritutako kazetaria, aktibista politikoa eta Pantera Beltzen partaidea izana da. 1981ean

gidatzen zuen taxia geratu eta gizon beltz bati jipioa ematen ari zen polizia bati atentzioa eman zion. Gizona, Mumiaren anaia gazteagoa zen, trafiko falta txiki bategatik geldiarazia. Polizia hura hiltzea leporatu zioten, eta heriotzaren pasabidean dago ordudunik Mumia. Bidezko epai-eketa eskatzeko kanpainak bata besteen ondoren izan dira mundu osoan. Egitanu horrekin bat eginik, Esan Ozenkik, Fermin Muguruzaren diskoetxeak, bilduma hau kaleratu du. Raperagineko doinuak dira hemen nagusi, eta Ferminen beraren lan bat ere badago. Batera datoren liburuxkan, justiziaren inguruko gogoeta interesgarriak daude.

### liburuak

#### CONNEMARA GURE BIHOTZETAN

Julen Gabiria

240 orr., 2.100 pta. (Elkarlañean)



Abiapuntu erromantikoa du eleberri honek, baina gauza guztiek bi alderdi dituzte. A modioaren ondoan, orpoz orpo, gorrotoa; laguntasunaren alboan, traizioa eta bakardadea.

Bidaia bakoitza, norberaren barrutieta-ranzko bidaia da, eta baliteke ikusi nahi ez ditugun gauzak aurkitzea. Hori da Txemari gertatzen zaiona. Bere neskalaguna, Eider, hil egin da, Irlandara egindako bidaia baten inguruko gogoetak diskete batean utzita. Txema, diskete hori aurkitu eta Eiderren urratsen ildotik abiatzen da. Zer aurkituko du Txemak bidaia horretan? Erantzuna, Igartza saria irabazi duen eleberri bikain honetan.

#### LOS PALACIOS DE LA MEMORIA

Alev Lytle Croutier

309 orr., 2.700 pta. (Grijalbo)



Abentura sinesgaitzak, eta arrisku kilikagarriak irakurri nahi izanez gero, beste liburu batera jo beharko duzue, hemen ez dago eta horrelako ezer. Eleberri leuna, emeki-emeki hasi eta ehunez

egindako mosaiko delikatua balitz bezala garatzen doan istorio hunkigarria dugu orri hauek gure begiradari itxaroten. Gaur egun Turkia dagoen lurraldean kokatzen da haria. Ipekci familiaren historia handi-txikia da, edonori gerta dakizkiokeen gertaerez josita: bete ezin diren amodioak, bakardadea, zalantzak, tragedia eta komedia... eta, barru-barruan, iraganeko miragarritasuna galtzen ari den lurralde bat, modernizatzen ari den ekialdea.

# Albistegia eguerdietan

Hasieran, abiatzea zen erronka irriaren-tzat. Izan ere, lekuaz gain, teknologia ere estreinatu behar zuen. Hilabete pare bat igaro ondoren, berriz, eta behin tokia eta teknologia digitala menderatu eta gero, beste-lako berrikuntzarik hasi da prestatzen.

Handiena datorren astelehenean hasiko da: eguerdietako informatiboa. Astelehenetik aurrera, Arrasate Irratiak ordulaurdeneko albistegia eskainiko du, 12:45ean hasita. Ordu laurden horretan, Alazne Ostolazak goizak eman duenaren berri emango digu eta baita arratsaldeak eman dezakeenarena ere.

Albistegiaren aurretik ere, 12:30etik aurrera, kutsu informatiboko hainbat atal emango dira: trafikoa, eguraldia eta eskelak, besteak beste.

Aldaketa hauekin, Arrasate Irratiak informatiboak indartu nahi ditu, inon baino lehenago, arrasatearrek irratian izan dezaten herrian gertatzen denaren berri.

Berrikuntza honek aldaketa batzuk ekarriko ditu goizeko programazioan, uztailean behinik behin. Bederatzietako albistegia betiko moduan hasiko da. Baita *Goizoro* magazina ere, hau 10:00etan. Lehen orduan elkarrizketak izango dira nagusi. Goizeko albistegia errepikatu ostean, berriz, *Goizoro* saioaren bigarren zatia etorriko da. Maier Uranga eta Aitziber Aranburuzabala arituko dira hor, zorion agur, errezeta eta



denetik apur bat egiten. Leire Kortabarrriak eta Gaizka Vitoriak ere emango digute beren gustuko musikaren berri.

Eta horren ondoren etorriko dira oharrrak, eskelak eta goian aipatu dugun albistegia, eguerdikoa.

Uda giroan, informazio kutsua dakarkigu Arrasate Irratiak.

arrasate  
irratia



## Uztaileko programazioa

- 09:00 **Albistegia**  
Alazne Ostolazarekin.
- 09:30 **Eguraldia.**
- 09:50 **Agenda.**
- 10:00 **Goizoro I**  
Aitziber Aranburuzabalarekin.
- 11:00 **Albistegia**  
(errepika).
- 11:15 **Goizoro II**  
Aitziber Aranburuzabala, Maier Uranga, Gaizka Vitoria eta Leire Kortabarrriarekin.
- 12:30 **Oharrak, eskelak...**
- 12:45 **Eguerdiko albistegia**  
A. Ostolazarekin.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea F-0-4  
Telefonoa: 791841  
Faxa: 792941

ARETXABA-ETA

## CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Uriburu kalean pisua salgai. 70 m<sup>2</sup>, berriztua. Tel.: 609 43 20 21 (15:30-17:00 deitu).

• 45 m<sup>2</sup>ko etxea salgai, Arrasate erdialdean. Berrizteko dago. Tel.: 943 79 81 25 (gauetz).

• Etxebizitza salgai Musakolan. Altzariak eta berogailuarekin. Tel.: 943 77 15 83. Iluntzeko 8etatik aurrera deitu.

### 2. Erosi

• Pisua erosiko nuke San Andres aldean. Igogailua, hiru logela, berogailua eta berriztua izan behar du. Ahal bada, bi bainugelarekin. Tel.: 943 77 16 45 (goizez edo 22:30etik aurrera).

### 3. Errentan emateko

• Ikasleentzako pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 22 19 (22:00etatik aurrera).

• Pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 28 63.

• Apartamentua alokagai Nojan. Bi logela eta hondartzatik gertu. Ekainean eta uztailean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Sei lagunentzat apartamentua alokagai Torrebiejan, ekainean eta uztailean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Hiru logelatako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 943 79 13 54.

• Uztailean, Donostian, 3 logela, 6 ohe, 2 bainugela eta egongela dituen pisua alokagai, 120.000 pezetan. Telf.: 943 21 65 63/610 94 35 86.

• Pisua errentan emateko, Zarautzen. Hirigunean eta berriztua. Tel.: 943 79 88 30.

• Donostiako Gros auzoan apartamentua alokagai, uztail eta abuztuan, hamabost egunez edo hilabetez. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 82 47/943 71 96 29 (lan ordutan).

• Ezkarain apartamentua errentan emateko. Igerilekuarekin. Tel.: 943 77 12 70.

• Gela bat alokagai, ikasleentzako, Arrasate erdi-erdian. Tel.: 943 79 45 87 (eguerdi aldean deitu).

• Apartamentua alokagai Laredon, hondartzatik oso gertu, 15-30 egunerako. Tel.: 943 79 52 80.

• Arrasate Ibilbidean pisua aloka-

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

gai. Tel.: 630 16 05 06.

• Bungalowa alokagai Torrebiejan abuztuko eta iraileko azken hamabostaldian, hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 52 94.

• Etxebizitza alokagai Erguinen. Tel.: 943 79 27 41.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bat behar dugu 5 mutilek. Tel.: 943 88 69 75. Orkatz.

• Pisu bat alokatuko genuke Armaion edo Aretxabaletan. Tel.: 629 92 48 82.

• Unibertsitateko hiru ikasle pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 18 74 75.

• Lau ikasle pisu bila. Tel.: 943 60 41 99.

• Irailetik aurrera etxe bat alokatuko nuke, 3 edo 4 gelarekin. Tel.: 943 83 34 47.

• Unibertsitateko ikasle talde batek lau lagunentzako etxebizitza behar du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 94365 45 22 (Aiala) edo 943 18 74 97 (Gorane).

### 5. Etxeak osatzeko

• Aretxabaletako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 71 99 94. Marta, lanorduetan.

• Neskak behar dira Leioan pisua osatzeko. Unibertsitateko gertu. Tel.: 666 33 80 51.

• Etxebizitza konpartituko nuke Gas-teizen. Tel.: 617 72 47 96. Ainaro.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Garaiea eta trastelekua alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 01 84.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

### 14. Errentan emateko

• Akademia batek eskolak emateko bi gela alokatzen ditu. Tel.: 943

79 18 70.

• Elikagaietan aritzeko lokala alokagai. Tel.: 943 79 96 39 (astegunetan).

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska bat prest arratsaldean lan egiteko. 16:30etik aurrera, umeak zaindu edo etxea garbitzeko. Tel.: 646 41 01 15.

• Asteleheneetik ostiralera bitartean, garbiketa lanak egiteko prest nago. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska arduradunak umeak zainduko lituzke, arratsaldean. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest jatetxean garbiketa lanak egiteko. Tel.: 600 600 531.

• Esperientziadun neska tabernan edo jangelan lan egiteko prest. Tel.: 676 87 99 48. Bea.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 646 76 01 66.

• Medikuntza ikasle bat gauetz gaixoak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 09 03, 943 79 23 17 (Ainara).

### 18. Eskaerak

• Zerbitzaria behar da jatetxean banatu eta mahaiak zerbitzeko. Tel.: 943 78 34 79, Felix.

• Jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 945 44 50 86.

• Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 22 99, 943 79 91 51.

• Emakumea behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa edukitzea derrigorrezkoa. Kontratoa eta baldintza onak eskaintzen dira. Tel.: 619 74 24 38.

• 30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko. Tel.: 630 16 05 06.

• Umeak zaintzeko pertsona arduratsua behar da. Tel.: 943 79 41 67.

• Tabernarako esperientziadun zerbitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97, 943 79 83 98.

• Neska arduratsua eta esperientziaduna behar da umeak zaindu eta plantxa egiteko, irailetik aurrera. Ordutegiak ez du axola. Tel.: 677 79 32 72.

• Neska bat behar da tabernan aste-

burutan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Esperientzia duen irakasleak Lehen Hezkuntzako eskolak ematen ditu, ingelesa barne. Tel.: 943 79 85 71 (21:30etik aurrera).

• DBHko eta LHko eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 943 79 33 39. Ahal bada 21:00etatik aurrera deitu.

### 21. Eskaerak

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

• Filosofia lizentziatua behar da UBIko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Opel Calibra 2.0i 16v. NA - AK. Tel.: 619 42 48 72.

• Volkswagen Golf 2-GTi salgai. Tel.: 943 79 48 49.

• Renault 19 turbo-diesel salgai. Tel.: 943 79 24 51 (21:00etatik aurrera, Maria Jesus).

• Mitsubishi Montero bat salgai, prezio interesgarrian. Tel.: 629 40 48 08. Enrique.

• Ford Transit furgoneta salgai, kanpinerako egokitua, abantzaekin eta teilatua ohea duela. Tel.: 943 79 31 25. Arratsaldez.

• Peugeot Speedfight bat salgai dago. Prezioa: 160.000 pta. Negoziatu daiteke. Tel.: 943 79 94 62, gaeuz deitu. Loli.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Windsurfeko taula salgai, Rumba modelo eta osagai guztiak. Tel.: 943 79 23 47.

• Txakurrendako atoaia salgai. Tel.: 943 79 82 24 (gaeuz).

• Billar amerikarra salgai. Egoera onean eta prezio negoziagarrian. Tel.: 630 38 91 22 (Felix).

• Drahtahr arrazako bi hilabete-

ko txakurra saltzen dugu. Pedigriduna. Tel.: 948 69 40 44, Yolanda edo Jose.

• Kanitxe kume zuriak salgai. Tel.: 943 76 57 16.

• Playstation kotsola salgai, 10 jokurekin. 10.000 pta. Tel.: 943 79 94 55 (Mikel).

• Hiru txakur salgai: Spaniela, 6 hilabete, arra; Puentea, emea, urte eta erdi; eta Setterra, emea, 11 hilabete. Tel.: 943 76 37 70.

• Hiru lekuko sofa, bi silloi eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

### 29. Eman

• Katu siamesdarra oparitzen dut, 2 urtekoa, ezin atenditzeagatik. Oso maitakorra da. Tel.: 943 76 39 95.

### 30. Hartu

• Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

### 31. Galdu

• Perla zuridun eta txibista formadun lotura duen lepokoa galdu nuen ostiralean, Seber Altuben. Aurkitzen duenak saria jasoko du. Tel.: 943 79 78 54.

### 33. Bestelakoak

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

### 32. Aurkitu

• Amaia Antzoki inguruan 34 neurriko jaka bakeroa aurkitu nuen. Tel.: 943 79 17 88.

• Sanjoan bezperan giltza joku bat agertu zen Totem dendan. Jabea bertatik pasa dadila.

• Ekainaren 25ean, neskatilarentzako jaka bakeroa aurkitu nuen, 12. tailakoa, Zaldibarren. Tel.: 943 77 00 18.

### 36. Deialdiak

• Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

**beherapenak**

ART III, BEST, SENDRA, SNIPE  
%10EKO BEHERAPENA

Zarugalde kalea, 14  
ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72



**A**rgentinatik heldu zaigun aste honetako fotozaharra. Mariano Etxagibelek bidali digu, Zarugaldeko futbol taldea zena orotzapenera ekarriz.

Santa Ageda auzora joan ohi zen aipatutako futbol taldea, hango gaixoen kontra futbol partidatxo bat jokatzeko asmoz. Ondoren, ospitalekoek bazkaria ematen zieten.

1944. urteko ekainekoa da argazki hau. Tente daudenak,

ezkerretik eskumara, honakoak dira: Antonio Ezkurra, Juanito Iturbe, Faustino Barrena, Luis Aretxaga, Juan Manuel Uranga, Bitor Errarte (botile-roa) eta Felix Uribarren.

Makurtuta daudenak, berriz, honakoak dira: Vicen-

te Sagasta, Jose Markaide, Elias Errarte, Mariano Etxagibel eta Juanito Azkargorta.

*Argazkia eta berriemailea: Mariano Etxagibel.*



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Super Net Kontua

Euskadiko Kutxa Net

# Eskua luzatzen dizugu bankan interneten bidez sar zaitezzen.

Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletatik eskua luzatzen dizugu erraztasun osoa izan dezazun bankan Interneten bidez sartzeko. Laguntza teknikoa ere emango dizugu 902 333 353 Telefono Zerbitzuaren bidez, inoiz ez zaitezzen trabatua geratu. Eta garrantzitsuenak. Super Net Kontua jartzen dizugu eskura, erabilgarritasun osoa duena inolako komisiorik gabe, zure aurrezkien askatasun osoz nabiga dezazun errentagarritasun altuan.

## Orain Super Net kontuarekin aukera berriak irekitzen zaizkizu:

- Errentagarritasun handiagoa kostu txikiagoekin.
- Azkartasun eta erosotasun handiagoa.
- Baloreen salerosketa, gordailuak, inbertsioak eta abar momentuan egiteko. Inbertsiogile handien abiadura berberaz mugi zaitezzen.



## ezaugarri nagusiak

### Ondorengo ordainketa lehen pezetatik hasita:

0tik 199.999 pta.ra, %0,10eko UTB (%0,10eko nominala)  
200.000tik 999.999 pta.ra, %2ko UTB (%1,982ko nominala)  
1.000.000etik 2.999.999 pta.ra, %3ko UTB (%2,960ko nominala)  
3.000.000tik 4.999.999 pta.ra, %4ko UTB (%3,928ko nominala)  
5.000.000tik 10.000.000 pta.ra, %5eko UTB (%4,889ko nominala)

- **Ez du helbideratzerik onartzen**
- **Gehienez 10.000.000 pta.ko zenbatekoa**

- Erabateko erabilgarritasuna
- Mantentze-komisiorik gabe
- Interesak egunero kalkulatuta
- Interesak hileror ordainduta
- Kontua sukurtsaletan irekita

Informazio gehiagorako, deitu 901 333 444 telefonora edo bisita ezazu gure Interneteko orri berezia: [www.cajalaboral.es/supernet](http://www.cajalaboral.es/supernet)

Kontu honek pertsona fisikoak bakarrik onartzen ditu eta bezero bakoitzeko kontu bakarra ireki ahal izango da.


901 333 444  
[www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin  
elkarlanean

UNITED COLORS  
OF BENETTON.

# DESKONTTUAK



Maialako Errabala, 13  
Tel. 943 79 50 78